

ikastola

aldizkaria

264



ONKI PROGRAMA

Argitaratzailea

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
Errotazar bidea, 126
20018 DONOSTIA
943 44 51 08

Argitaratze data

2025eko ekaina

Koordinazioa

Amaia Lasa eta Arantza Munduate

Testuak

Koldo Aldabe

Diseinua

Iker Torres

Ilustrazioak

Aritz Trueba

Inprimatzailea

GERTU inprimategia
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

Lege gordailua

SS 425-2015

**Paper %100 birziklatuan eta ekologikoan
inprimaturiko alea**



ikastolenelkartea

04 HARIA

ONKI PROGRAMA

PARADIGMA ALDAKETA TUTORETZAN

10 SOLASEAN

TUTORETZA ZER DEN

SOLASTU, ENTZUN, ETA EGOTEKO AUKERA

20 SAKONEAN

HELBURUA

IKASLEEN ONGIZATEA ETA BIZITZARAKO HEZTEA

23 LILURATURA

GALDERAK EGITEAREN BALIOAZ

FILOSOFIA APUR BAT

27 IKASTOLAK

ONKIREN AURKEZPENA

IKASTOLEN KOMUNITATEARENTZAT, ARANTZAZUN



ONKI PROGRAMA

PARADIGMA ALDAKETA TUTORETZAN

Ikasleak, pertsona bezala, osotasunean hartuta eta Ikastolen komunitate osoaren inplikazioarekin abiatuko da datorren ikasturtean Ikastolen ONKI programa. Tutoretza ereduaren inguruan eraiki dugun marko eta egitasmo berria da. Ikastolen Hezkuntza Marko Orokor berria deskribatutako Pertsona Edua hartzen du oinarri, eta hura bezala, ikaslearekiko ikuspegi holistikoa batekin landu da.

Tutoretzan paradigma aldaketa ekarriko duen programa da ONKI. Izan ere, alderdi akademikotik harago doan programa da, Hezkuntza Marko Orokorreko Pertsona Ereduan oinarritzen da, eta han ezarritako bost bereizgarriak garatzeko diseinatu da. Ikaslea erdigunean hartuta, osotasunean jartzen du fokua eta ongizatea du xede. Era berean, irakasleak bezala, gurasoak ere inplikatzeko ditu.

Pertsona eredu hori garatzeko bidean, ONKI programak hiru eremutan landuko du tutoretza plana: eremu pertsonalean, eremu sozialean eta ikasten ikasteko eremuan. Eta eremu bakoitzarentzat jarduerak eta ariketak planteatzen ditu.

Eremu pertsonalean, Pertsona Ereduaren Euskalduna eta Barne sendotasuna duena bereizgarriak landuko dituzte. Lehenari dagokionez, euskal identitatea, euskal hiztun osoa izatea, euskal kultura... jorratuko dira. Gure nortasunaren parte garrantzitsua izanik, leku handia izango du tutoretza planean.


Barne sendotasuna jorratu eta garatzeko, berriz, batetik, barne askatasuna, norbere ezagutza, jorratuko dira. Ikusiko dute zeintzuk diren bakoitzaren bertuteak, zeintzuk ahuleziak, zein potentzial dituen bakoitzak; hori deskubritzen joango dira urteetan zehar. Hezkuntza edo heziketa afektiboa ere landuko da alderdi emozionaletik; konfiantza sustatu eta indartzeko estrategiak landuko dira, erresilentzia ere bai, hau da, egoera desberdinei, erronkei, nola egiten dieten aurre eta aurre egiteko ze bide jorratu behar duten.



Eremu sozialean edo interpertsonalean, Eraldatzaile eta Kooperatiboa bereizgarriak sakonduko dira. Batetik jazarpenaren prebentzioari jarriko zaio arreta. Kasu honetan, KIVAK orain arte jokatu duen papera bere egingo du ONKIk. Horrekin batera, balio etikoak jorratuko dituzte (elkarbizitza, leialtasuna, betetasuna, adiskidetasuna...), enpatia landuko dute harreman guztien oinarri gisa; besteekiko errespetua, justizia soziala, talde pertenezia, Giza Eskubideak, komunikazio asertiboa, entzutearen pedagogia, hezkidetza eta berdintasuna ere eremu honetan jorratuko dituzte.

Ikasten ikasteko eremuan kokatzen da Pertsona Ereduaren Erabakitzaile-Ekintzaile bereizgarria. Pentsamendu kritiko eta sortzailea landuko dute eremu honetan, Filosofiaren bidez. Filosofiak lagunduko die bizitzaren inguruko hausnarketa egiten, nortzuk diren hausnartzen. Hazkuntza mentalitatea ere landuko dute, unean uneko erabakiak hartzen ikasteko. Jakinmina, adituen arabera ikasketarako emoziorik egokiena izanik, piztu eta mantentzeko bideak ere jorratuko dituzte.

Lana kudeatzea eta metakognizioa ere eremu honetan landuko dute. Barne hausnarketa sakona egingo dute. Badaude jarduera finko batzuk beraien hausnarketa propioak egiteko. Eta guztia biribiltzeko, auto-erregulazioa: ikasleak jakitea nola dagoen, nola sentitzen den, nola ikusten duen bere burua...



JARRAITUTASUNA

Astean gutxienez bi ordu programatu dira tutoretza saioak egiteko ikasleekin. Horrek esan nahi du asteroko jarraitutasun bat izango duela programak, helburuetako bat baita saio hauen iraunkortasun bat ziurtatzea, saio hauen benetako balioa, KIVA programak urteotan erakutsi digun moduan, konstantzia baita.

Horregatik, aipatutako eremuak lantzeko gaiak eta ariketak proposatuko diren arren, garrantzitsuena ikasleen eta irakasleen arteko konfiantza gunea sortzea izango da. Irakasleak erreferente oso inportanteak dira ikasleekiko etapa guztietan zehar, eta atxikimendu seguru bat lortzeko aukera ematen du tutoretzak.

Langaien bidez, ikasleek bizitzan biziko dituzten egoera, erronka eta esperientzien aurrean jarduteko behar dituzten eskumenak hartzea bilatzen da. Autoezagutzan sakontzeko, oreka pertsonala eskuratzeko, oreka soziala bilatzeko, jazarpena ekiditeko, sexu hertsamena ekiditeko... ONKI programak gauza askoren inguruan hitz egiteko aukera emango du. Bizitzarako estrategiak emango ditu eta, era berean, prebentiboa izango da; bizitza orekatu baten bila abiatu, baina bizitzan aurkitzen ditugun egoerei eta oztopoei aurre egiteko bideak emanaz jardungo du programak.

Horrekin batera, zaintza pertsonala eta zaintza soziala sustatuko dira. Ikasleak hazten ari diren pertsonak dira, pertsona bezala eraikitzen ari dira. Alderdi horretatik, zaurgarriak dira, eta zaintzaren begiradarekin beren potentziala garatzen lagunduko die irakasleek.

Halere, tutoretzak ez du esan nahi irakasleak gai guztien konponbidea eman behar duenik, galdera guztiei erantzun beharko dienik. Aitzitik, ikasleentzat momentu bat sortzeaz ari da ONKI programa, gai guztiez hitz egiteko, elkarrekin egoteko, elkar ezagutzeko.

IRAKASLEAK ETA GURASOAK

Tutoretza plan honek paradigma aldaketa ere badakar. Ez du fokua bakarrik ikasleengan jarriko irakasleengan ere bai baizik. Nola sartzen den gelan, zer emoziorekin sartzen den, zer lasaitasunarekin, zer eragiten dion ikasle batek, zer beste batek... azkenean bizikidetzat handia dago, emozio asko egoten diran egunean zehar ikasgelan, baina ez bakarrik ikasleengan, irakasleengan ere bai baizik. Irakasleak nola kudeatzen du hori? Nola bizi ditu bere emozioak, nola identifikatzen ditu?



Alderdi horretatik, ONKI programak bilatzen du irakasleak ere bere barrura begiratzea beren introspektzioa egitea. Horregatik, programaren edukiak, ariketak, haien lanketa eta beste argibide batzuekin batera, irakasleen prestakuntza saioetan alor hau ere jorratuko da.

Ikasleekin hitz egiteko gai batzuk deserosoak izan daitezke: sexualitatea, jazarpena, heriotza... baina horiek garrantzitsuak dira hazteko. Beldurra eragin dezakete ikasleekin jorratzeko orduan, baina horretarako bideak jarriko dira prestakuntza saioetan, formatu egingo dira irakasleak, eta 0tik 18 urte bitarteko akonpainamendu horretan gauza asko partekatuko dituzte.

Gurasoentzat ere aukera bat izango da gai korapilatsu berak jorratzeko, azkenean bai irakasleek eta bai gurasoek, guztien artean bide hauek eraikitzen badituzte, lagundu egingo diete seme-alabei, ikasleei. ONKI programak emango du irakasleen eta gurasoen arteko eguneroko harremanak eta komunikazioak beste modu batera jorratzeko aukera. Askotan jardun handia izaten da alderdi akademikoari begira (notei begira, ikasi du ez du ikasi, ikasteko ohitura du...); leku gutxi dute, ordea, ikasleen emozioez, haien garapen pertsonalaz mintzatzeko. Plan honek aukera emango du elkarrikitasun horiek beste modu batera bideratzeko, beste dimentsio batera eramateko, eta gurasoekin ikaslearen beste ezaugarri batzuk partekatzeko.





TUTORETZA ZER DEN

SOLASTU, ENTZUN,
ETA EGOTEKO AUKERA

Eli Altolagirrek koordinatu du Ikastolen Tutoretza Plan Integrala. Besteak beste, Ageda Laradogoitia izan du alboan lan handi hori egiteko. Handia izan baita egin duten lana, "erraldoia", Laradogoitia hitzetan. Eta erdia baino ez dute egin, DBHri dagokiona egin baitute. Lehen Hezkuntzari ere heldu diote, ordea. Biak elkartu ditugu, egindakoaz eta egiteko dutenaz hitz egiteko.

Tutoretzaren, ONKI programaren, haren berritasunen, inplementazioaren, eta beste hainbat gairen inguruan bueltaka ibili gara Altolagirrerekin eta Laradogoitiaekin. ONKI programa martxan jartzeko ilusioa eta gogoia antzematen zaie.

Zer da tutoretza eta zer ez da tutoretza?

ELI ALTOLAGIRRE: Tutoretza da ikasleekin egiteko momentu bat, une bat. Aukera bat da, beraien zalantzen inguruan hitz egiteko, beraien esperientziak entzuteko, esperientziak partekatzeko. Talde pertinentzia sustatzeko unea ere bada. Zaintzan eta ezagutzan (nor bere buruarena eta bestearena) sakontzeko; ongizatea eta jarrera osasuntsuak hausnartzeko parada ere bada. Da, baita ere, askatasunez hitz egiteko momentu bat. Ikasle bakoitzak bere iritziak ditu, eta aukera eman behar diegu gai horiez hitz egiteko, epaitu gabe.

AGEDA LARAUDOGOITIA: Bai, nik uste dut oso garrantzitsua dela orain Elik esan duena juiziorik gabe, ikasleak, dauden adin horretan, guk beren esanak epaitzen baditugu, edo haiek esandakoak txarto daudela edo ez direla egokiak esaten badiegu, horrela, zuzenean, horrekin ez dugu ezer lortuko. Orduan, bada momentu bat entzuteko, haiengandik ere ikasteko, jakiteko zelan sentitzen diren, eta zelan bizi dituzten egoerak eta munduan diren gai guztiak, eurek zelako ikuspuntua duten. Gure partetik irekiak egon behar dugu, gauza guztiak entzuteko. Eurak joango dira apurka-apurka bidea egiten, baina ildo zenbait eman diezaiekegu, gero beraiek aukeratuko dute, baina guk hor egon behar dugu, eta lagundu egin behar diegu.

E. A.: Hor dago hitz gakoetako bat, akonpainamendua. Beraien bizitzako momentu honetan, guk haiekin harreman seguruak eraikitzea, lotura seguruak eraikitzea. Egonezin eta jakinmin asko dituzte garai hauetan, dena pasio handiarekin bizi dute, kuriositatea dute, eta horretaz hitz egiteko parada bat eskaini behar zaie, horretarako une bat: goazen horretaz guztiaz hitz egitera.



Eli Altolagirre

“Ikasleek egonezin eta jakinmin asko dituzte garai hauetan, dena pasio handiarekin bizi dute, kuriositatea dute, eta horretaz hitz egiteko parada bat eskaini behar zaie, horretarako une bat: goazen hori guztiaz hitz egitera”.

Eta zer ez genuke izatea nahi? Bada gelara iritsi, eta jarduerak planifikatuta eta diseinatuta daudenez, horiek egite hutsa. Hori ez dugu izatea nahi. "Gaur hau landuko dut eta, ea, goazen dinamika hau egitera". Ez, haratago doa. Da momentua eta gure ikasleak ezagutzeko errespetatu behar dugun tarte. Eta ez da gure ikasleei zer dagoen ondo, zer dagoen gaizki esateko unea. Da aintzat hartzea zer aukera ona dugun gure ikasleak pertsona bezala ezagutzeko, eta beren ibilbide horretan laguntzeko.

A. L.: Jarduerak izan behar du aitzakia bat eurekin lan bat egiteko; baina lehen esan dugun bezala oso irekiak izan behar dugu. Jakinda, zein den helburua, jarduera horren helburua, horretatik ahal dugun guztia ateratzea. Eta ahal dugun guztia diogunean, da euren sentipenak adieraztea, gai horretan edo jarduera horretan landu duguna nola bizi duten esatea. Argi edukiz jarduera ez dela helburua, baizik eta bidea, nahi dugun lekura heltzeko.

"Irakasleentzat oso garrantzitsua izango da prestakuntza. Funtsezkoa da segurtasunez joatea; segurtasunak ez du esan nahi erantzun guztiak edukitzea. Askotan, entzute hutsa nahikoa da".

Zergatik diozue ONKI programak paradigma aldaketa dakarrela tutoretzan?

E.A.: Paradigma aldaketa diogu, ikasleen barne sendotasunari begira jarriko garelako, hura indartzeko, segurtasun handia lortzeko, horrek gero baldintzatuko ditu-eta ondorengo harremanak, baldintzatuko ditu ikasketak. Alegia, pertsona osotasunean heltzeko edo hezteko bide bat irekiko du. Ikasleei bizitzarako erremintak ematea bilatzen dugu, edozein egoeraren aurrean erantzuteko gai izatea.

Paradigma aldaketaren beste gakoetako bat da irakasleen prestakuntza. Askotan, tutoretza saioak bizi ditugu eginkizun zail bezala. *Ondo jakingo dut erantzuten? Aurreikusi gabeko egoera batean nola moldatuko naiz ni?* Orduan, irakasleak trebatu egingo ditugu, baita alderdi emozionalean ere, eta beldur horiek lantzeko edo aurre egiteko prestakuntza bat eskainiko dugu. Irakaslea ziurtasunez joan dadin jorratu behar duen gaiaz, jakinik aldiro erantzun bat edukitzea ezinezkoa izango duela. Pertsona garen neurrian ikasleei ere hori adierazi behar diogu.

A.L.: Irakasleentzat oso garrantzitsua izango da prestakuntza, batez ere oso gai berezia delako. Horregatik funtsezkoa da segurtasunez joatea; segurtasunak ez du esan nahi nik dena dakidala eta erantzun guztiak ditudala. Ez, ez da hori, ez da erantzun guztiak edukitzea. Askotan, entzute hutsa nahikoa da. Orduan, irakasleei lasaitasun hori eman behar zaie.

E.A.: Ikasleen barne sendotasuna aipatu izan dugu, baina irakasleok ere landu behar dugu barne sendotasuna.



Eli Altolagirre eta Ageda Larau dogoitia

“ONKI programak Bizitzarekiko ongizate bat, osotasun bat ekarriko du, oreka bat, eta denon arteko akonpainamendu bat. Ikasle, irakasle, familia... denon arteko elkar eragite bat sortuko da. Harreman eta komunikazio alorretan bide polit bat irekiko du, eta aberastu egingo gaitu”.

Zerk bultzatu zaituzte paradigma aldaketa hori egitera?

E.A.: Gizarteak markatu gaitu asko, gizarteko egoerak: ziurgabetasun egoera batean bizi gara, egoera anitz asko ematen dira, aldaketa askoko unea da. Egia da, gu bagatozela baita ere, tutoretza saioetan KIVA programa lantzetik, prebentzio horretatik. KIVA gureganatu genuen bezala, orain ONKIK emango dio zabaltasun bat. Azkenean KIVAk bazeukan prebentzioko bide hori, eta ONKIK bide horri jarraituko dio baina pertsona beste dimentsio batean kontuan hartuz. KIVA oso ondo funtzionatu duen programa bat izan da, oso sistematikoa izan da, eta guk ere tutoretza plana hori izatea nahi dugu, zerbait sistematikoki lantzea, gero bere onurak dakartzalako.



A.L.: Oso garrantzitsua da programa sistematikoki lantzea. Argi dago, eta hori diote ikerketek, gai bat behin edo birritan landuta ez dela nahikoa; jarraitu egin behar da lantzen. Sistematikoki lantzen den plan bat izan behar da. Tutoretza plan bat izatea bai ikasleentzat eta bai irakasleentzat, eta baita familientzat ere, horrek emango digu guztioi sendotasuna, indarra eta balio asko.

E.A.: Ez dugu orain arte aipatu, baina familiek ere hemen beren tokia edukiko dute. Parte egingo ditugu tutoretza plan honetan.

Urte batzuk badira jazarpenari aurrea hartzeko eta aurre egiteko KiVa programa ezarri zenetik ikastoletan. Zer ikusi eta ikasi duzue programa horretatik? Zer eratuko da KiVatik ONKI programan?

A.L.: Programaren ardura eraman nuen hasieratik, eta egia esan asko ikasi dugu. Baina ez bakarrik jazarpenaren inguruan. Jazarpenari buruz ikasi dugu zer den, zer ez den, zelan kudeatu behar dugun, gurasoekin batera, irakasle guztiarekin batera eta ikasleekin betiere. Hori ere garrantzitsua da ONKI programan. Irakasleak izango dira zentroa, eta eurek gabe ezingo dugu ezer lortu. Finlandian hasi ginenetik, hara joan eta programaren lehen urratsak egin genituenetik gaur egunera, esan behar dut bide luzea egin dugula eta batez ere gureganatu egin dugula programa. Gurea bihurtu dugu. Ekarri dugu gure pentsatzeko erara, gure beharretara, gai batzuk luzatu behar izan ditugu, beste gai batzuk berriak sartu ditugu, eta beti ere gure ikuspuntutik.

E.A.: Eta hori gure programara eraman dugu. Egongo dira jazarpeneko jarduera propioak, baina hori ondo bideratzeko aurretik gorputzaren lanketa, emozioen lanketa egingo dugu. Gainera, elkarlan handia egin dugu azkeneko bi urteotan Agedak eta biok, KiVako hainbat jarduera gure programan txertatu ditugu. Eta jazarpenaren gaia tutoretzako parte bat da. Gainera, KiVatik ikasitako beste hainbat ezaugarri beste gai batzuetan txertatu ditugu.

Zer ekarriko die ONKik ikasleei, irakasleei, familiei?

E.A.: Bizitzarekiko ongizate bat, osotasun bat ekarriko du, oreka bat, eta denon arteko akonpainamendu bat. Azkenean irakasleok ikasleekin hori egiten dugu, familiek ere bai seme-alabekin, eta uste dut denon arteko elkar eragite bat sortuko dela. Niretzako harreman eta komunikazio alorretan bide polit bat irekiko du, eta aberastu egingo gaitu.

A.L.: Arlo akademikotik harago joatea ere ekarriko du, askoz harago. Arlo akademikoa garrantzitsua da, baina pentsatzen dugu askoz ere garrantzitsuagoa dela pertsonak jorratzea, eta pertsonak aurrera ateratzea. Hori da, ekarriko duena, nire ustez, tutoretza plan berriak. Irakasleek laguntza handia jasoko dute, ez delako erraza tutoretza lan bat aurrera ateratzea, aurretik ere euren arloak dituztelako, batzuk harremanetarako trebeagoak diren bezala beste batzuk ez direlako, baina guztiak direlako irakasle, eta lagundu egingo zaie bide honetan. Eta gurasoak ere hor daude, ikasleen bizitzako erreferente handiak, eta eurekin ere harremanetarako eta izateko modu berri bat ekarriko du.

E.A.: Eta ikastolari, komunitate osoari aberastasun bat ekarriko dio. Gure barne sendotasuna lantzen baldin badugu gure eguneroko lanean ditugun harremanetan ere lagunduko digu, konfiantza hori eraikitzen ere lagunduko digu. Ikasleei pertsona bezala eraikitzen lagunduko dien bezala, guri ere pertsonalki eta profesionalki lagunduko digu. Horrek ikastolari beste klima bat ekarriko dio, beste ongizate bat.

Zer ekarriko die ONKik ikasleei, irakasleei, familiei?


E.A.: Bizitzarekiko ongizate bat, osotasun bat ekarriko du, oreka bat, eta denon arteko akonpainamendu bat. Azkenean irakasleok ikasleekin hori egiten dugu, familiek ere bai seme-alabekin, eta uste dut denon arteko elkar eragite bat sortuko dela. Niretzako harreman eta komunikazio alorretan bide polit bat irekiko du, eta aberastu egingo gaitu.

A.L.: Arlo akademikotik harago joatea ere ekarriko du, askoz harago. Arlo akademikoa garrantzitsua da, baina pentsatzen dugu askoz ere garrantzitsuagoa dela pertsonak jorratzea, eta pertsonak aurrera ateratzea. Hori da, ekarriko duena, nire ustez, tutoretza plan berriak. Irakasleek laguntza handia jasoko dute, ez delako erraza tutoretza lan bat aurrera ateratzea, aurretik ere euren arloak dituztelako, batzuk harremanetarako trebeagoak diren bezala beste batzuk ez direlako, baina guztiak direlako irakasle, eta lagundu egingo zaie bide honetan. Eta gurasoak ere hor daude, ikasleen bizitzako erreferente handiak, eta eurekin ere harremanetarako eta izateko modu berri bat ekarriko du.

E.A.: Eta ikastolari, komunitate osoari aberastasun bat ekarriko dio. Gure barne sendotasuna lantzen baldin badugu gure eguneroko lanean ditugun harremanetan ere lagunduko digu, konfiantza hori eraikitzen ere lagunduko digu. Ikasleei pertsona bezala eraikitzen lagunduko dien bezala, guri ere pertsonalki eta profesionalki lagunduko digu. Horrek ikastolari beste klima bat ekarriko dio, beste ongizate bat.

A.L.: Horri erantsiko nioke gurasoak datozenean, edo familia berriak, jakitea badagoela plan bat pertsonak garatzeko, ez bakarrik ikasgaiak. Horrek ere badu garrantzia eta bereizgarri bat eransten dio ikastolari, plus bat.

“Arlo akademikoa garrantzitsua da, baina pentsatzen dugu askoz ere garrantzitsuagoa dela pertsonak jorratzea, eta pertsonak aurrera ateratzea. Hori da, nire ustez, tutoretza plan berriak ekarriko duen aldaketa nagusia”



Nola planteatzen duzue ONKlren ezarpena ikastoletan? zeintzuk izango dira bitartekoak?

E.A.: Diseinatuta dago asteroko bi ordutako saioa izateko. Lehen aipatu dugun sistematizazioa oso garrantzitsua da, eta asteko bi ordu horiek horretara dedikatzea ezinbestekoa ikusten dugu.

Prestakuntza, berriz, alderdi teorikotik bezala alderdi pertsonaletik ere joango da. Egongo dira prestakuntza bibentzialak, gure emozioak askatzeko, gure heldutasun afektiboa lantzeko, auto-ezagutza lantzeko... Alegia, eraldatze pertsonal batera joko dugu.

Programa gelaratzekoan, jarraipen bilerak ere egingo ditugu. Badakigu jarraipen bilera horiek, akonpainamendua, irakasleentzat oso garrantzitsua dela, eta horrelako saioak ere egingo ditugu.


A.L.: Ez da bakarrik irakasleak biltzea eta programa aurkeztea, eta metodologia azaltzea. Funtsezkoa da, baita ere, urtean hainbat aldiz denok elkartzea, elkarri bere esperientziaren berri ematea, zerk funtzionatu dien, zerk ez, gai bat nola jorratu duten, gai bera modu desberdinean nola jorratu duten... Elkarrekin eta elkarrengandik ikastea.

E.A.: Programaren zehaztasunetara joz, hor daukagun oinarria, Pertsona Eredua, bost bereizgarriak eta hemezortzi ezaugarriak, barne hartzen ditu programa honek. Ziurtatuta dago, beraz, ereduko adierazle guztiak lantzen ditugula. Lantzen ditugu, gainera, momentu desberdinetan, banan bana beharreen, modu holistikoa, osotasun batean. Alegia, plan oso bat izango da.

Etap guztietan batera ezarriko da, ala mailakatua izango da ezarpena?

E.A.: Datorren ikasturtean DBHtik abiatuko da. Lau ikasturteak diseinatuta daude eta gelaratzeko prest. Hurrengo ikasturteari begira, berriz, diseinatu eta sortuko ditugu Lehen Hezkuntzarako programa eta ariketa eta lanketa saioak. Zergatik eman diogu lehentasuna Bigarren Hezkuntzari? Agian etapa honetako ikasleek dituzten ezaugarri bereziengatik. Garai inportante bat da gure bizitzan, aukeren garai bat da, eta akonpainamendu hori egiteko lagungarri egingo zaie programa hau. Gainera, batzuentzat gurekin egongo diren azkeneko etapa izango da.

A.L.: Planarekin hasi ginenean, pentsatu behar zen nondik hasi. Maila guztiak gauzatzea erraldoia da. DBHkoa diseinatzea bera ere erraldoia izan da eta! Aldaketa handien garaia da nerabearoa, bai fisikoa, bai identitarioa, eta horregatik erabaki genuen etapa hau lehenestea.



Ikusi gehiago



ATXIKIMENDU SEGURUA
KONFIANTZAZKO ATXIKIMENDUA

PREBENTIBOA
BIZITZARAKO
ESTRATEGIAK


PERTSIA
EREDUA

KANPOKO
NORBERA
BARRUTIK
HASTEN

ZAINTZA-BEGIRADA

BIZITZA-HERIOTZA





MAKUSI

PARTE HARTU ESKOLA ERRONKAN

Ikastetxeei zuzendutako erronka

Bidali 'Ikusi Makusi' abestiaren zuen bideoklipa

Sari potoloak dituzue zain!



**INFORMAZIO
GUZTIA**



@makusi_eus




www.makusi.eus



HELBURUA

IKASLEEN ONGIZATEA ETA BIZITZARAKO HEZTEA

Tutoretza plan integral berri bat abiatuko dugu ikastoletan heldu den ikasturtean, ONKI programa izena jarri dioguna. Tutoretza plan berri honek ikasleen ongizatean jarri du fokua, eta gure planteamendua ere hortik abiatzen da; arazoak sortzen diren uneko eskuhartzeetatik harago doa, beraz.



Ongizatea ez da luxua,
eskubidea baizik.
Eta tutoretzak badu
zeresana ongizate
hori lantzeko.
Horregatik, gure
ikuspegia integrala da:
curriculumaz harago
doa, eta hezkuntza
komunitate osoa
inplikatu nahi du

Tutoretza plan integral berri bat abiatuko dugu ikastoletan heldu den ikasturtean, ONKI programa izena jarri dioguna. Tutoretza plan berri honek ikasleen ongizatean jarri du fokua, eta gure planteamendua ere hortik abiatzen da; arazoak sortzen diren uneko eskuhartzeetatik harago doa, beraz.

Izan ere, orain arteko tutoretza plan edo programa askok arazo jakin batzuen inguruan jarri dute arreta (gaixotasun jakin batzuk, jazarpena, zailtasunak...). Programa edo plan horiek zailtasunak daudenean soilik eskuhartzea lehenetsi dute edo, ia ebidentzia batzuk ikusi direnean, bideratzeak egitea proposatzen dute. ONKI programarekin urrats sendo bat egitea erabaki dugu, gure planteamendua ezberdina izan dadin, eta tutoretza plan berriak Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorrean proposatu dugun Pertsona Ereduari (euskalduna, barne sendotasuna duena, eraldatzailea, erabakitzaile-ekintzailea eta kooperatiboa) erantzun diezaion. Oinarriak, beraz, argi dauzkagu.

Esku-hartzetik harago doa, prebentzioari ematen baitiogu lehentasuna, jazarpenaren gainean KIVA egitasmoak erakutsi digun bidetik. Prebentzioak, dena den, ez du esan nahi, kasuak gertatuz gero esku-hartzerik egingo ez denik. Kasuak gertatzen direnean, noski, esku-hartu egin behar da, horretarako ditugu protokoloak eta legeak ere hala agintzen du.

Era berean, prebentzioa aipatutakoan ez gara ari arazoak ekiditeko neurri zehatzez. Guk planteatzen dugun bideak beste ikuspegi bat du. Horregatik prebentzioa ez dugu erabiliko gaixotasunetik urruntzeko tresna gisa, baizik eta pertsona ororen ongizaterako bide bat moduan.

Pertsona oro esan dugu, eta hori azpimarratu nahi dugu, gure tutoretza plana ikasle guztientzako baita. Ez dago soilik zailtasunetan daudenentzat pentsatua. Izan ere, guztiok dugu zer landu, zer deskubritu eta zer hausnartu. Gure burua hobeto ezagutzea, gorputzarekin konektatzea, emozioak kudeatzen ikastea, zaintza, harreman osasuntsuak eraikitzea, elkarbizitza positibo baterako bidea egitea, metakognizioa... Horiexek dira gure planaren giltzarriak.



Tutoretza osasunaren ikuspegitik lantzea ez da medikalizatzea. Ez dugu ikasleak paziente bihurtu nahi, baizik eta subjektu aktibo: bere garapen fisiko, emozional eta sozialaren protagonista (gaitasun fisiko eta soziala indartu eta norbere potentzialtasunean sinestuz hazteko mentalitatea sustatu) izatea nahi dugu; ikasleak erdigunean izango dira eta irakasleak haien bidaide. Prebentzioaren bidez, osasuntsuago hazten lagundu nahi diegu, baita bizitza estilo osasungarriak barneratzen ere, presiorik gabe baina kontzientziaz.

Ongizatea ez da luxua, eskubidea baizik. Eta tutoretzak badu zeresana ongizate hori lantzeko. Horregatik, gure ikuspegia integrala da: curriculumaz harago doa, eta hezkuntza komunitate osoa inplikatu nahi du. Ez da plan soil bat: hezkuntza ulertzeko eta bizitzarako hezteko modu bat da.

Izugarrizko aukera daukagu gure ikasleekin. Batzuetan tutoretza zama gisa bizi izan dugu, motxila astun gisa. Deserosotasuna ere sentiarazi digu (hainbat gai jorratzeko beldurra, ziurgabetasuna, eta hauek gainditzeko tresna ere bada tutoretza, irakasleria seguru sentitu dadin). Baina guk buelta eman nahi diogu horri. A zer

Izugarrizko aukera
daukagu gure
ikasleekin. Batzuetan
tutoretza zama
gisa bizi izan dugu,
motxila astun gisa.
Deserosotasuna ere
sentiarazi digu. Baina
guk buelta eman nahi
diogu horri. A zer
aukera paregabea
dugun gure ikasleak
ezagutzeko!

aukera paregabea dugun gure ikasleak ezagutzeko! Beren bizitzaren parte bat izango gara, eta beren eraikuntzan guk aletxo bat jartzea iruditzen zaigu izugarrizko esperientzia dela. Aukera bat da pertsonak hezteko eta ez hainbeste curriculumari begiratzeko. Edukiko dute Matematika, edukiko dute Euskara eta beste hainbat arlo, baina goazen tutoretzaz gozatzea eta gure ikasleekin horretaz aritzea. Ilusio handiarekin bizi dugu aukera hau ONKI programa garatzen aritu garenok, eta iruditzen zaigu oso aukera polita dela pertsona baten garapena ikustea, eta garapen horretan guk jarri dugun alea erretzen ikustea. Benetan esperientzia paregabea da.

Ikuspegi horrekin landu dugu ONKI programa. Abiatzera goaz, ilusioz eta baikortasunez, tutoretzan paradigma aldaketa handi bat ekarriko duen bidaian.





GALDERAK EGITEAREN BALIOAZ

FILOSOFIA APUR BAT

Ikastolon hezkuntza-eredua pertsonaren garapenean zentratutako proposamena da. Honek esan nahi du ulertzen dugula gure egitekoa pertsona bere dimentsio guztietan (soziala, kognitiboa, motorra, emozionala, existentziala...) garatzen laguntzea dela, askotariko eremuetako ezagutzak eraikitzen laguntzetik harago.

Ikastolok garatzen eta eraikitzen lagundu nahi dugun pertsona horrek besteak beste erabakitzaile-ekintzailea izan behar duela definitu dugu; arazo eta egoeren aurrean konponbideak bilatzeko eta erabakiak hartzeko galderak egiten dituen, mundu digital honetan informazio-iturri fidagarrietara jotzen duena eta kritikotasunez gogoeta egiten duena. Horrek inplikatzeko du jakin-mina izatea, analitiko-kritikoa eta erresolutiboa izatea.

Literaturak, gozamen eta jakintza iturri izateaz gain, badu haur eta gazteen artean pentsamendu kritikoa, sormena eta transmisioa sustatzea helburu.

Filosofia da behatzea, harritzea, galderak egitea, pentsatzea eta hitz egitea.

Badira filosofiaren eskutik pentsamendu kritikoa garatzera bideratuak dauden hainbat proposamen, baita euren jarduna hildo horretatik jorratzen duten argitaletxeak ere, 1545 argitaletxea eta Wonder Ponder (hauen lanak euskarara itzulita TTartalon aurki daitezke) esate baterako.

Liburu (interesgarri) guztiek galderak dituzte, baita esplizituki agertzen ez direnean ere. Erantzunak bildu beharrean galderak egiten ohitzea, ordea, ez da ematen duena bezain erraza. Trebezia hau entrenatzeko, galderak formulatzen dituzten liburuekin harremanetan jartzea, edo hitzik gabeko albumak erabiltzea benetako gimnasioa da.

Munduan galderak egotea komeni da, egitea komeni da, probokatzea komeni da, garrantzitsuak dira jakin-minerako, garrantzitsuak ezagutzarako, garrantzitsuak hezkuntzarako, garrantzitsuak bizitzarako.

Gustatuko litzaiguke galderak gustatzea, baina gero, horiei heltzerakoan, deseroso senti gaitzke.

Kosta egiten zaigu erantzunik gabeko galderei aurre egitea. Zertarako balio dute erantzunik gabeko galderek? Galdera helburu bat izan daiteke bere baitan, eta ezagutzaren parte izan daiteke.

Haurrek galderak egiten dituztenean, helduek sentitzen dute: erantzun lasaigarria eman behar diot, eta bizkor. Eta ez da hori izaten, haiekin elkarrizketa bat izateko eskatzen ari zaizkigu.


Gauza bera gertatzen zaigu orokorrean hitzik gabeko albumekin, deseroso sentitzen gara haien aurrean. Isiltzen ez den mundu batean murgilduta gaude, eta tarteka apur bat isildu eta entzun behar dugu.

Hitzik gabeko liburuak irekiak dira, ez dute dena erantzuten eta liburuarekin elkarrizketa izatera gonbidatzen gaituzte. Liburu ireki horiek elkarrizketa askotarako abiapuntu dira, elkarrizketa irekitzen dute, ez baitute dena kontatzen. Gertatu dena ez kontatzean, bakoitzak bere esperientziatik interpretatzen du, eta hemen literaturak, emozioekin bat egiten du. Ez da liburu bat behar emozioei buruz hitz egiteko, emozio batekin konektatu behar zaitu liburuak.

Iturriak:


5º Congreso de creatividad y literatura infantil, Va de Cuentos. Hizlariak: Ellen Duthie, ¡Qué vivan las preguntas!; Issa Watanabe, Narrar desde el silencio.

Ikastolen Elkarteak: Bazatuz? Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorra.



Ellen Duthie, Daniela Martagon: **Ni, pertsona / Mundu krudela**, Ttarttalo.

Wonder Ponder proiektuak filosofiaren galdera handienetako batzuk luzatzen dizkie irakurleei modu bizi eta erakargarrian. Liburu-kaxak aztertzeko, irakurtzeko eta haiei buruz pentsatzeko eginak dira, bakarka, lagunaren artean nahiz familian, testuinguru ludikoetan edota hezkuntza esparruan.



Oi(h)artzun filosofikoa: **Hamaika kutixi filosofiko**, 1545 argitaletxea.


Hamaika kontakizun eta hamaika ilustrazio, hamaika galderaz lagundurik. Inguratzen gaituzten zenbait idazlek eta ilustratzailek mimo izugarritz egindako hamaika lan.



Alaia Martin Etxebeste / Udane Ansa Iragorri: **Puf**, 1545 argitaletxea.


Puf galdera liburua da. Irakurleak era guztietako galderak aurkituko ditu: azalekoak,

sakonak, bihurriak, mingarriak, arinak, literalak, metaforikoak... Galderak ditu, baina ez galderak bakarrik; bertsoak ditu, baina ez bertsoak bakarrik... Zer da, bada, liburu hau? Norentzat? Zergatik? Puf!



Golden Cosmos, Noemi Schneider (itzultzailea: Beñat Sarasola): **LUDWIG ETA ERRINOZEROA**, 1545 argitaletxea.

Ludwigek dio errinozero bat dagoela gelan. Aitak gelako bazter guztiak miatu ditu, baina ez du aurkitu errinozerorik. Ludwigek, ordea, erakusten dio aitari zerbait hortxe egon daitekeela, nahiz eta ikusi ez. Lo aurreko ipuin filosofiko bat.



Uxue Alberdi Estibaritz, Araitx Messanza Iturritxa: **Hili**, Elkar.

Bizirik gaudelako pentsatzen dugu hiltzeaz Uxue Alberdik

eta Araiz Mesanzak sortu duten liburu ilustratuak heriotza du hizpide. "Adin batetik aurrera, hil egingo garela ulertzen dugu, ulertzen saiatzen gara", horixe da proiektuaren abiapuntuko hausnarketa. Haurrengan pentsatu du Uxuek aurrenetik: "Hilda egotea zer den ulertzen saiatzen da haurra, eta ihes egiten dio zerbaitetik"; liburuaren ekarpena, ordea, ez dago haurrei mugatua, heriotzaren inguruko galdera-erantzunak ez direlako inoiz erabakita geratzen.

ITXASTURTE BERRIRAKO PREST!

elkarkideentzat
eskaintza berezia

Lortu itzazu papertegiko
eskaintza onenak
elkar txartelarekin

elkar

www.elkar.eus

ONKIREN AURKEZPENA

IKASTOLEN
KOMUNITATEARENTZAT,
ARANTZAZUN



Aurreko asteetan Ikastolen Tutoretza marko berrian oinarritutako Plan Integralaren zertzeladak ematen jardun ostean, iragan ekainaren 5ean aurkeztu zen, azkenik, ONKI programa. Interesa piztua zuen aurretik, eta ikastola ugaritako ordezkariak agertu ziren Arantzazuko Gandiaga Topagunera (Oñati), bai eta hezkuntza arloko hainbat ordezkari ere.

Eskenatoki natural paregabea, ilusioz eta baikortasunez, egin zen ONKI programaren aurkezpena. Ikastoletako komunitatearen eta hezkuntza eta gizarte eragileetako ordezkarien aurrean izan zen aurkezpena, guztira ehundik gora lagun elkartu ziren Arantzazun.



Agurne Barruso Ikastolen Elkarteko zuzendariaren agur hitzen ondotik, Zigor Ibarzabalek eta Eli Altolagirrek hartu zuten hitza, hurrenez hurren, Ikastolen Elkarteko Hezkuntza zuzendariak eta ONKI programaren diseinatzaile eta Ikastolen Elkarteko Orientazio taldeko kideak. Bien artean mamitu zituzten ONKI programaren xehetasunak eta tutoretzan ekarriko dituen aldaketak. Mahai inguru bat ere izan zen ondoren. Ikastolen Elkarteko Haur eta Lehen Hezkuntzako arduradun eta KUKU emozio programaren sortzaile Amaia Ayerrak, Eli Altolagirrek eta Harremanak taldeko Olatz Berastegik hartu zuten parte mahai inguruan.



IBAI BENGOA BILBAO



Herria: Gernika-Lumo.

Gradua: Lehen Hezkuntza Mondragon Unibertsitatean.

Zaletasunak: Musika sortzea eta ekoiztea.

Biolina, gitarra elektrikoa eta pianoa jotzea, lagunekin egotea, pelikulak eta serieak ikustea, kirola egitea.

Lehen Hezkuntza graduko 4.mailan zaude, zergatik aukeratu zenuen gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Nire kasuan, irakasle izatearen nahia lehen hezkuntzatik dator, hezkuntzan ikusitako injustiziengatik, nire barnean sortzen zen suak erre egiten ninduelako eta nire burua injustizia hauei aurre egiteko gai ikusten nuelako. Nire filosofia eta minak kontuan hartuta, hezkuntzaren begirada berritzailea duen unibertsitate baten bila hasi nintzen, Mondragon Unibertsitatearekin topo egin nuen. Hor hasi ginen bidea elkarrekin egiten.

Nolakoa izan da orain arte bizitako

esperientzia? Nahiko ibilbide polita izan da. Mondragon Unibertsitateak benetan ikasteari eta kontzientzia pizteari garrantzia ematen dizkio, irakasle batek behar dituen ezaugarriak beste modu batean delaraziz. Bide horretan, gure gorabeherak, hesatostasunak eta eztabaidak izan ditugun arren, esperientzia aberatsak eskaini dizkit, nire izaera indartuz.

Zein metodologia erabiltzen duzue?

Mondragon Unibertsitatean Mendeberri 2025 eredu erabiltzen da. Eredu honen atzean dagoen helburua, ikasleen profil akademikoan eragiteaz gain, garapen pertsonalean esku-hartzea da, erronka teknologiko, ekologiko eta sozialei aurre egiteko baliabideak eskainiz.

“Nire filosofia eta minak kontuan hartuta, hezkuntzaren begirada berritzailea duen unibertsitate baten bila hasi nintzen, Mondragon Unibertsitatearekin topo egin nuen”

Orain arte zein esperientzia praktiko izan dituzu ikastetxeekin?

Gradu honetako maila guztietan izan ditugu praktikak eta hauetan esku hartzeko aukera izan dugu. Ikasgelan aurki ditzakegun egoerak maneiatzeak, ikasteko gaitasun eta erritmo desberdinak dituzten ikasleen beharrak identifikatzeak eta baliabideak eskaintzeak, nire prestakuntza indartu dute. Unibertsitate honek eskaini dizkigun praktikak, esperientzia positibotzat eta eraldatzailetzat hartzen ditut.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Lehen aipatu dudana bezala, unibertsitate honek planteatzen duen filosofia eta metodologia dira erakarri nindutenak iraganean. Gaur egun ere horrela pentsatzen dut. Mondragon Unibertsitateak duen filosofiak, etorkizuna aldatzeko begirada jartzen du eta nik etorkizuneko irakasle bezala izango ditudan helburuak lortzeko baliabideak eskaintzen dizkit. Azkenean, hori da nahi izan dudana.

Etorkizunari begira zein asmo daukazu?

Etengabe ari gara erabakiak hartzen eta horiek etorkizunaren norabidea aldatzen dute. Egia esan, ez dut nire etorkizuna oso argi ikusten. Dena den, badakit unibertsitate honi esker bide asko zabaltzen zaizkidala. LH-ko irakasle moduan lan egitea gustatuko litzaidake, iraganean markatutako helburuak lortu nahi ditudalako, baina nork daki?

